HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

@@@AGINDUA, 2006KO AZAROAREN 2KOA, HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILBURUARENA, 2006KO EKAINAREN 13KO AGINDUAN JASOTAKO DEIALDIA EBAZTEN DUENA. AGINDU HORREN BIDEZ, HEZKUNTZA-SUSTAPENERAKO EKINTZAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZETARAKO DEIALDIA EGIN ZEN.@@@

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2006ko ekainaren 13ko Aginduak (2006ko irailaren 4ko EHAA) hezkuntza-sustapenerako ekintzak burutzeko diru-laguntzetarako deialdia egin zuen. Agindu harekin eta deialdia egin zuen aginduaren 10. artikuluarekin bat etorriz, horretarako izendatutako Balorazio Batzordeak proposatuta, hau

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Han adierazitako dirukopuruak ordaintzea I. eranskinean aipatzen diren pertsona fisiko edo juridikoei. Epe bakar batean ordaindu beharko dira emandako zenbateko osoan, agindu hau indarrean sartu eta gero, dirulaguntzaren onuradunak 2005eko ekitaldian diruz lagundutako jarduera osoa egiteari dagozkion gastuen justifikazioa 2006ko azaroaren 30ean baino lehenago bidali ondoren.

Bigarrena.– Agindu honen II. eranskinean agertzen diren eskatzaileek egindako diru-eskabideak ukatzea, bertan adierazten diren arrazoiengatik.

Azken Xedapena.- Administrazio bidea amaitzen duen Agindu honen aurka, interesatuek aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal diote Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuari, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2006ko azaroaren 2a.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua,
JOSE ANTONIO CAMPOS GRANADOS.

EHAA-n SARTZEKO

Izpt.: Igone Martinez de Luna Unanue
Sailburuaren Kabinetearen Zuzendaria

## I. ERANSKINA / *ANEXO I*

| Izena<br>*Denominación* | IFK<br>*C.I.F.* | Diru-laguntza guztira<br>*Total subvención* |
|---|---|---|
| Ayuntamiento de Portugalete | P4809100C | 1.012,- Euros |
| Ayuntamiento de Leioa<br>Leioako Udala | P4806400J | 6.000,- Euros |
| Ayuntamiento de Gordexola<br>Gordexolako Udala | P4805000I | 495,- Euros |
| EDEX | G48124408 | 1.200,- Euros |
| Asociación Avant | G95216370 | 2.000,- Euros |
| Fundación Troconiz Santacoloma | G48246417 | 2.000,- Euros |
| Centro de formación San Jose de Calasanz | 14379118R | 1.000,- Euros |
| Epelde-Mardaras | B95201109 | 3.000,- Euros |
| Grupo edebé | Q0800889H | 400,- Euros |
| Colegio Sagrado Corazón Ikastetxea | Q0100138G | 800,- Euros |
| Urretxu-Zumarraga Ikastola | F20545877 | 600,- Euros |
| A.E.C.C. Asociación Española contra el Cáncer, Bizkaia | G28197564 | 6.000,- Euros |
| A.D.D.H.- Asociación para La Defensa de la Dignidad Humana | G48756373 | 1.000,- Euros |
| Laboratorios Aidelos, S.R.L. | B95245155 | 2.000,- Euros |
| Orereta Ikastola | G20058814 | 1.000,- Euros |
| FORLAN desarrollo local | 9808302E | 1.000,- Euros |
| Zarauzko Udala | P2008500 | 1.000,- Euros |
| Colegio Ibaigane Ikastetxea | G48110068 | 3.000,- Euros |
| Pasaia Lizeoa, S.L. | B20074878 | 2.000,- Euros |
| Inguralde | P9801702C | 1.000,- Euros |
| Kristau Eskola | G20915690 | 6.000,- Euros |
| GUZTIRA / *TOTAL* | | *42.507,- Euros* |

## II. ERANSKINA / *ANEXO II*

| Izena/*Denominación* | Ukatzeko arrazoia/*Causa de denegación* |
|---|---|
| Kantuz Musika Eskola | 1 |
| ASTI-LEKU Ikasle-Ohien Elkartea | 1 |
| Ayuntamiento de Portugalete | 1 |
| Ikastolen Elkartea | 1 |
| IES-BHI Txurdinaga-Artabe | 1 |
| Colegio Manuel de Larramendi | 1 |
| IES URRITXE-ZORNOTZA BHI | 1 |
| Fundación ETORKINTZA | 1 |
| Kristau eskola | 1 |
| ARANZADI IKASTOLA | 1 |
| Pausoka | 1 |

UKATZEKO ARRAZOIAK / *CAUSAS DE DENEGACIÓN*

1.– Ez da deialdi honetan sartzen.
*No ser objeto de esta convocatoria.*
2.– Proiektu horietarako laguntza bereziak daude.
*Existencia de ayudas específicas para ese tipo de proyectos.*
3.– Diru-languntzak emateko ekitaldiz kanpo jarduera gauzatzea.
*Realizar la actividad fuera del ejercicio subvencional.*
4.– Lehentasuna duen ekintza ez izatea.
*No estar dentro de las actividades más prioritarias.*
5.– Eskabidea epez kanpo aurkeztea.
*Presentación de solicitud fuera de plazo.*
*6.- Deialdian eskatzen diren baldintzak ez betetzea.*
*No cumplir los requisitos exigidos en la convocatoria.*